

INFORMAZIO-OHARRA AFILIAZIOA ESPAINIAN DUEN HERRITARRARENTZAT

Dokumentu honen helburua da herritarrei beren osasunari buruzko datu pertsonalen tratamenduaren berri ematea Europar Batasuneko beste estatu kide batean asistentzia sanitarioa eskatzen dutenerako.

Europar Batasuneko Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak (EB) herritarrei beren datu pertsonalen prozesamenduari buruzko informazioa emateko ezartzen dituen betebeharrak betetzeko zabalitzen da informazio hau.

Zer da osasungintza elektronikoko zerbitzu digitalen azpiegitura?

Osasungintza elektronikoko zerbitzu digitalen azpiegitura (eHDSI) Europar Batasuneko Mi Salud @ UE (My Health @ EU) zerbitzuaren barruan dago. Zerbitzu horrek bide seguru eta erraza eskaintzen die Europako herritarrei beren osasun-datu pertsonalak beste estatu kide batzuei bitarteko elektronikoen bidez jakinarazteko atzerrian asistentzia sanitarioa behar dutenean. Datu horiek herritarri arreta ematen zaion Europar Batasuneko (EB) beste herrialde batzuetako osasun-profesionalei ematen zaizkie. Datu pertsonalak asistentzia sanitarioa eskatzen den herrialdeko legeen arabera tratatzen dira.

Zer motatako datuak tratatzen ditugu?

European Patient Summary (EUPS) edo Pazientearen Laburpena oinarritzko datu klinikoen multzo bat da, zeina mugaz gaindi jakinarazten den paziente batek beste herrialde batean jaso behar duenean asistentzia sanitarioa. Pazientea identifikatzen duten datu pertsonalak eta hari buruzko osasun-datu garrantzitsuak biltzen ditu, hala nola alergiak, egungo medikazioa, aurretiko gaixotasunak eta kirurgiak, datu horiek beharrezkoak baitira pertsona bat atzerrian behar bezala artatzeko.

Informazio hori Pazientearen laburpenean edo EUPSean dago eskuragarri, Osasun Sistema Nazionalaren Historia Kliniko Digitalaren (aurrerantzean, OSNHKD) bidez, betiere pazientearen datu pertsonalak erregistratuta eta elektronikoki eskuragarri badaude bere autonomia-erkidegoko osasun-zerbitzuan.

Beraz, OSNHKDaren eta Europako elkarrengarritasun-sarearekin komunikatzeko atariaren bidez, pazienteak bere autonomia-erkidegoko osasun-zerbitzuak sortu duen Pazientearen laburpena izango du eskuragarri beste herrialde batzuetan.

Zertarako tratatzen ditugu zure datuak?

Europar Batasuneko beste herrialde batean arreta ematen dizuten osasun-profesionalek beharrezkoa duten informazio klinikoa izan dezaten tratatzen dugu zure Pazientearen laburpena. Pazientearen laburpena arreta ematen dizuten herrialdeko zerbitzu asistentzialen informazio-sistemetan gorde ahal izango dute. Prozesu asistentzian, baliteke zure osasunari buruzko datu gehiago emateko eskatzea herrialde horretako osasun-profesionalak. Datu horiek ere osasun-zerbitzu horren informazio-sistemetan gorde ahal izango dituzte. Edonola ere, zure datuak eskatzen duzun asistentzia sanitarioa eman ahal izateko tratatuko dira beti.

Kontuan izan balitekeela beste herrialde batzuetan beste helburu batzuetarako erabiltzea zure osasunari buruzko datu pertsonalak, bai interes publikoko misio bat betetzeko, bai legezko betebeharrak betetzeko. Besteak beste, baliteke helburu hautarako erabiltzea: delitu bat egiten ari den ikertzeko, osasun publikoagatik, epidemiologiagatik eta estatistikagatik. Hala ere, xedea beti izango da asistentziaren kalitatea hobetzea.

Espanian, Pazientearen laburpena OSNHKD sistemak eta autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuek osasun-datuak tratatzeko erabiltzen duten modu berean tratatuko da.

Nork eskuratu ahal izango ditu datuak?

Sekretu profesionalaren pean edo sekretuaren behar baliokidearen pean dauden profesionalak tratatuko dituzte zure Pazientearen laburpena eta EBko beste herrialde bateko profesional sanitarioei ematen dizkiezun bestelako osasun-datuak. Herrialdeek profesionalak behar bezala informatu eta trebatzeko konpromisoa hartu dute, eta profesional horiek asistentzia-eginkizunak betetzeko eta asistentzia horren ondoriozko legezko betebeharrak edo legez xedatutako beste betebeharrak batzuk betetzeko baino ezingo dituzte eskuratu zure datuak.

Pazientearen laburpeneko datuak herrialde bakoitzak ezarritako eHealth-erako Harremanetarako Puntu Nazionalak emandako pasabide tekniko seguru baten bidez transferituko dira. Espainiaren kasuan, informazioa Osasun Ministerioak kudeatutako atari teknikoaren bidez bidaliko dira datuak beste herrialde batzuetara, eta Osasun Ministerioak autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetatik lortzen ditu datu horiek. Osasun Ministerioak eta autonomia-erkidegoek beharrezko akordioak sinatu dituzte datuak babesteko betebeharrak betetzeko. Era berean, EBko estatu kide guztiek akordio bat sinatu dute betebeharrak horiek Europa mailan ere bete eta herritarrei mugaz gaindiko zerbitzu horiek emateko. Osasun Ministerioak ez du erantzukizunik eskualdeetako osasun-zerbitzuek tratatzen dituzten osasunari buruzko datu pertsonalen gainean.

Zerk legitimatzen du datu pertsonalak tratatzeko?

Pazientearen laburpena tratatzeko lege-oinarria Mugaz Gaindiko Asistentzia Sanitarioari buruzko 2011/24/EB Zuzentaraua da. Bertan ezarritako betebeharrak bete behar dira, baita transposizioa egiteko Espainiako araudia ere; hau, hain zuzen: 81/2014 Errege Dekretua, otsailaren 7koa, Europako herritarrei mugaz gaindiko asistentzia sanitarioa eta jarraitutasun asistentziala ahalbidetzeko Espainiako Estatuak daukan legezko betebeharra betetzeko dena.

Espainian, osasuneko datu pertsonalak osasun-profesionalak asistentzia sanitarioa emateko osasun-datu pertsonalak tratatzeko duten betebeharra betetzeko tratatzen dira. Halaber, zure datuak interes publikoko arrazoiengatik tratatu ahal izango dira osasun publikoaren esparruan, edo beharrezkoa denean interes publikoaren izenean artxibatuzko, ikerketa zientifiko edo historikorako edo estatistiketarako. Une oro aplikatuko dira Segurtasun Eskema Nazionalean ezarritako neurri teknikoak eta segurtasunekoak (urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretua, Segurtasunerako Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren eremuan arautzen duena).

Zure datuak honako xedapen hauen arabera tratatuko dira beti: DBEOaren 6.1.c), d) eta e) artikulua eta 9.2.h), i) eta j) artikulua eta Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoaren 17. xedapen gehigarria.

Zure Pazientearen laburpena EBko beste herrialde bati jakinarazten zaionean, zure datuak asistentzia sanitarioa eskatu duzun herrialdeko araudiaren arabera tratatuko dira. Kontuan izan balitekeela EBko herrialde batzuek baimena eskatzea zure datuak tratatzeko.

Zenbat denboraz eta non gordetzen dira zure datuak?

Osasunari buruzko zure datu pertsonalak zure autonomia-erkidegoko osasun-zerbitzuan gordeko dira, bai eta asistentzia eskatzen duzun EBko herrialdean ere. Espainian, kontserbazio-epea Pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Oinarrizko Legearen 17. artikuluan xedatutakoa da, bai eta hura garatzen duen araudi autonomikoan xedatutakoa ere. Hain zuzen hori, lege horien arabera, 5 urtez gorde behar dira datuak gutxienez, prozesu asistentzial bakoitzari alta ematen zaion egunetik zenbatzen hasita.

Hala ere, kontserbazio-aldi luzeagoak aplikatu ahal izango dira interes publikoaren izenean artxibatuzko, ikerketa zientifikorako edo helburu estatistikoetarako. Horretarako, pribatutasuna babesteko neurri egokiak aplikatuko dira, hala nola datu pertsonalen anonimizazioa.

Zure osasun-datuak EBko beste herrialde batzuetan gordetzen badira, datuak tratatzen diren helburua betetzeko behar den denboraz baino ez dira gordeko.

Hala ere, biltegitratze-aldi hori aldatu egin daiteke herrialde batetik bestera, eta, horregatik, garrantzitsua da ondo irakurtzea artatzen zaituzten herrialdeko pazienteari informazioa emateari buruzko abisua.

Zein eskubide dituzu?

Hala dagokionean, zure autonomia-erkidegoko edo osasun-zerbitzuko edo Ceuta eta Melilla hiri autonomoetako (INGESA) tratamenduaren arduradunaren aurrean edo asistentzia sanitarioa jaso duzun herrialdeko tratamenduaren arduradunaren aurrean balia ditzakezu zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, haien aurka egiteko eta haien tratamendua mugatzeko eskubideak. Horretarako, idazki bat bidali beharko duzu tratamenduaren arduradunak azaltzen dizun moduan edo, Espainian bada, egoitza elektronikoan gaitutako formulario baten bidez. Beherago aurkituko duzu tratamenduaren arduradun nazionalen eta autonomikoen zerrenda.

Zehazki, eskubide hauek dituzu:

- a) Edozein unetan zure datuak eskuratzeko eskubidea. Horretarako, tratamenduaren arduradunari eskabide bat bidali behar diozu.
- b) Pazientearen laburpenean oker dauden datuak zuzentzeko eskubidea.
- c) Pazientearen laburpeneko datuen tratamendua mugatzeko edo tratamenduaren aurka egiteko eskubidea, zure egoera partikularra dela eta, DBEOaren 21. artikulua arabera.
- d) Espainiako kontrol-agintaritzaren aurrean ([Datuak Babesteko Espainiako Agentzia](#)) erreklamazioak edo eskaerak aurkezteko eskubidea, zure eskubideak baliatzean gogobetarik geratu ez bazara.
- e) Tratamenduaren arduradun edo eragile baten aurkako benetako babes judiziala eskatzeko eskubidea.
- f) Kalte-ordaina eta erantzukizuna eskatzeko eskubidea, DBEOaren 82. artikulua arabera.

Mugaz gaindiko asistentzia sanitarioari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, Espainiako Harremanetarako Puntu Nazionalera jo dezakezu: <https://www.sanidad.gob.es/pnc/ciudadanoEsp/home.htm>
Erreklamazioei buruzko informazioa nahi baduzu, esteka honetan sar zaitezke: <https://www.sanidad.gob.es/pnc/ciudadanoEsp/infReparRecl.htm>

Tratamenduaren arduradunaren harremanetarako datuak

Eskualdean

Jarri zure autonomia-erkidegoko osasun-zerbitzuaren edo INGESArekin harremanetan:
<https://www.sanidad.gob.es/organizacion/ccaa/directorio/home.htm>

Estatuan

Osasun Ministerioa. Informazio Sanitarioko Zuzendariordetza Nagusia.
Paseo del Prado 18-20, 28014 Madrid.
Helbide elektronikoa: delegadoprotecciondatos@sanidad.gob.es
Eskubideak baliatzeko web-formularioa:

https://www.sanidad.gob.es/servCiudadanos/proteccionDatos/docs/Formulario_DPD_MSCBS.pdf

Dokumentuaren amaiera.